

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko abenduaren 5a / 564. zenbakia



Agurtzane Diaz

Txilen izan da, eta
hango emakume
nekazariekin esperientziak
trukatu ditu

MUSIKA ESKOLA: IKASLEEN EMANALDIA MARTITZENEAN/12 • FUTBOLA: BERGARA-ALOÑA DERBIA /10

AZALA: MIREN ALMARAZ / ARGAZKIA: MONIKA BELASTEGI



ANTIA
HARATEGIA
Matxiategi 8
BERGARA



MUJIKA
HARATEGIA
Kalebarren 1
ANTZUOLA

OSAGAI ONENAK GURE KONTU



IMAZ
HARATEGIA
Aranerrika 1
BERGARA

Prestatu, zuk prestatuko
duzu ondoen,
baina osagai onenak
gurean eskuratu
ahal izango dituzu:
zure herriko dendetan.




SAN PEDRO
FRUTATEGIA
San Pedro z/g
BERGARA



KOLTXOIAK

%15eko eta %25eko
deskontuarekin


Zatoz
Masterreka 11ko
erakustokira



Barrenkale 23 • Tel.: 943 76 29 65
Masterreka 11 • Tel.: 943 76 58 79

ederTU

ATREBENTZIAEZPADA/ Baserriko produktu biologikuak erosteko ohiturarik badaukazu?



FRANCISCO GUTIERREZ
61 urte

CELSA FERNANDEZ
41 urte

JOSETXO MARZO
40 urte

BEGOÑA GAINZA
37 urte

JOSEBA UGARTE
37 urte

ANA JIMENEZ
52 urte

...a, egixa esateko, ez daukat ohiturarik produktu biologikuak erosteko. Bati-... batzuetan erosten jarraitzen dot, eta produktu biologikuak ez doste konfiantzarik emoten.

Azokan ez da aukera handirik egoten. Nahiago nuke aukeran gehiago egotea, produktu biologikuak gustoko dittut-eta. Kalitate aldetik hobiak dira, eta erosten dittut batzuetan.

Ez, ez dot erosten. Baiña aitta baserriko ortuan ibiltzen da, eta haren produktuekin konfiantza osua daukagu. Etxeko produktuak kalitate onekuak dira, eta haiek izaten dira onenak.

Noizean behin. Askotan ez dira eskura egoten eta nahi baino gutxiago erosteko aukera izaten dogu. Hori bai, kalitate aldetik askoz hobeak dira. Eta kalitatea ordaindu beharra dago.

Batzuetan erosten dogu, baiña oso gutxi. Pixkanaka-pixkanaka gero eta gehiago erosten dogu; kalitate ona daukate, eta bertakoak direla kontuan izanda, askoz hobeto.

Ez, gauzaren bat edo beste bai, baiña normalian ez. Produktu onak dira, osasuntsuak direla emoten dau. Baiña askotan ez dira egoten. Batzuetan bakarrik erosten dittut.

TALOKETATXISTUAK



LIBURUAK SAN JOXEPEKO LIBURUA San Xosepe elkarteak oso interesgarria kaleratu du euren egoitzaren historia jasoz. Lan handia egiten du elkarteak oro har, eta liburua horren adibidetakoa da. Hala eta guztiz ere, badu gure ustez akats larri bat liburuak: ez dagoela hutsean dagoela, hain justu. Ele bitara, euskaraz eta gaztelaz, Imanol Sorondoren hitzaurrea besterik ez du. /M.B.

ETABARRUAN...

| | | |
|---|---|---|
| ASTEKO BERRIAK /7 | KIROLAK /11 | KULTURA /12 |
| Agurtzane Diaz | Pilota txapelketak | Kolitzabesbatza |
| ...lodi baserrikoa da eta EHNE sinatutako ordezkaria. Txilen izan da lan esperientziak elkar trukatzan. | Gabon sariko eta Gipuzkoako Txapelketako partiduak izango dira gaur eta etzi Udal Pilotalekuan. | Balmasedako Kolitzabesbatzak emanaldia egingo du bihar, 20:00etan, Santa Marina elizan. |

ASTEKO DATUA

2

PUNTU BETERIK EZ FUTBOL TALDEAK AZAROAN

Preferente mailako Bergara KEko futbol taldeak bi puntu besterik ez du lortu azaroan. Jokatuak bost partiduetatik hiru galdu eta bi berdindu ditu. Aloharen aurka jokatu du bihar.

BESTE EKESANA

“ Esan nahi dudana da derrigorrez herri-herriko gaitara mugatu beharrik ez dugula, izan ere, askotan ez dago batere garbi zer den herri edo bailarako gara eta zer ez. (...) Esan nahi dudana da nik ez nukeela inolako zalantzarik izango herriz edo bailaraz kanpoko beste eduki eta sortzaile batzuei ere gure aldizkarian tokia egiteko baldin eta honako baldintza hau betetzen badute: erakargarritasun maila/kostua ratioa oso ona izatea. azken batean, esan nahi dut herri-komunikabideei eta, bereziki herri-prentsari, heldu zaiola ordua, herrikoari utsiz, bailarara, naziora eta mundura begiak eta belarriak zabaltzeko, elkarlanean etorkizuneko erronkei aurre egiteko. **ESTEPAN PLAZAOLA / Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartearen presidentea 'Argia'/03-11-23**

BERAIEK DIÑO/ Edurne Azuara



Argiak piztu dira

Guztiok prest. Argiak piztu dira. Dagoeneko Gabonak gainean ditugu eta bat batean badirudi lasterketa bati hasiera eman zaiola. Bat batean egunak falta zaizkigu agertzen zaizkigun afari guztietara joan ahal izateko (eta hasi zenbakiak botatzen...): kintada alde batetik (joan nahi duguna), laneko afaria bestetik (joan egin behar duguna), gimnasiokoa (ez joateko aitzaki bila hasten garena). Ezinezkoa dirudi baina bai, guztiak hilabete berean.

bizi familia guztiarekin konpartitzen ditugun zenbakiak daude, beste alde batetik, lantokiko zenbakia dago (lagunaren lantokikoa ere bai), kafea hartzen dugun tabernan ere erosi egin behar dugu (lagunak kafea hartzen duen tabernan ere bai, noski...).

“Agian Gabonak gorroto ditugu familia guztiarekin, lagun guztiarekin egon ezin dugulako”

Beste alde batetik, Olentzero datorkigu ate joka, eta atea zabaldu behar... (segi zenbakiak gehitzen). Urteroko erosketak ere egin behar dira, eta urtero bezala buruari hamar mila buelta emango dizkiogu menua jakiteko, nahiz eta azkenean urtero ere berdina jaten amaitu... baina azkenean hau ez da ezer Gabonetan azkenaldi honetan erosten dugun loteria guztiarekin konparatzen badugu; lehenda-

Beraz, ez da harriztekoa hasten den hilabete honetan guztiok apur bat aztoratuta ibiltzea. Dena den, badauka hilabete honek nire ustez beste zerbaite ere. Berezi bihurtzen duen zerbaite (edo agian guk bihurtzen dugu berezi). Zergatik gorroto edo maitatzen ditugu Gabonak? Agian Gabonak maite ditugu familia guztiarekin, lagun guztiarekin egoteko aukera delako. Agian Gabonak gorroto ditugu familia guztiarekin, lagun guztiarekin egon ezin dugulako. Ziurra dena da Gabonak datozela eta ospakizun handi edo handirik gabe daudenean igaroko ditugula. Zorionekoak gu.

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 5**
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
- ZAPATUA, 6**
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
- DOMEKA, 7**
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
- ASTELEHENA, 8**
MOZOS. Iparragirre 2. 943 76 12 15
- MARTITZENA, 9**
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
- EGUAZTENA, 10**
ZABALA. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
- EGUENA, 11**
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05

TELEFONOJAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIAK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 53 47 20
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emalleak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kiroldegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Idolaz 943 76 65 08
- Erretiratuaren etxea, Bergara 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuaren elk. 943 76 62 71
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|---|----------------------|
| San Pedro | Labegaraieta |
| Domekak: | Domekak: 11:00. |
| 09:30, 12:30. | San Lorentzo |
| Zapatuak eta | Zapatuak: 20:00. |
| lanegunak: | Angiozar |
| 19:00. | Domekak: 11:30. |
| Sierbak | Moja Zaharrak |
| Lanegunak: 19:15. | Lanegunak: 09:00. |
| Zapatuak: | Zapatuak: 11:00. |
| 19:00. | Mizpirualde |
| Domekak: | Lanegunak: 11:45. |
| 11:30, 13:00. | Zapatuak: 17:30. |
| Osintxu | Antzuola |
| Domekak: 12:30. | Domekak: |
| Zapatuak: 19:00. | 09:00, 11:30. |
| Elosu | Zapatuak eta |
| Domekak: 10:30. | lanegunak: 19:30. |
| Ubera | Uzarraga |
| Domekak: 10:30. | Domekak: 10:00. |
| San Juan | Elgeta |
| Domekak: 11:00. | Lanegunak: 09:00. |
| Elorregi | Zapatuak: 19:30. |
| Domekak: 10:30. | Domekak: 12:00. |
| URTE-MEZAK | |
| Santa Marina | |
| Hileko bigarren domekan, 10:30ean eta | |
| 13:00etan. | |
| San Pedro | |
| Hileko hirugarren domekan, 09:30ean eta | |
| 12:30ean. | |

OHARRAK

1982AN JAIOTAKOEN BAZKARIA ABENDUAREN 13AN

1982an jaiotako bergararrek bazkaria egingo dute datorren zapatuan, abenduaren 13an, Boluko Eguzkitza jatetxean. Egunean bertan Pol-Polen elkartuko dira, 13:00etan. Izenematea (aurrez 30 euro) Euskadiko Kutxan irekitako kontuan (0090 0700 95) egin daiteke abenduaren 9a baino lehen.

1985EAN JAIOTAKOEN BAZKARIA ABENDUAREN 24AN

1985ean jaiotako en bazkaria abenduaren 24an. Eguna hurbildu ahala, bazkaria zein tokitan egingo duten zehaztuko dute.

URTEKO AZKEN ODOL ATERATZEA EGUAZTENEAN

Bergarako Odol Emaileen Elkarteak jakinarazi duenez, odol ateratzea izango da eguaztenean, abenduaren 10ean, Seminarioko lokalean, 18:30ean hasita. Urteko azken odol ateratzea izango da. Odol emalleen bila dabil bergarako elkarte. Interesa dutenak eguaztenean bertan hurbil daitezke Seminariora, goian aipatutako orduan.

IKASTAROAK KZGUNEAN

KZGuneak herritar guztien dako informatika ikastaroak eskaintzen ditu. Besteak beste, Interneten nabigatzeko eta prestakuntzako ikastaroak antolatuta dituzte. Argibideak Irizar jauregiko (Barrenkalea 33) lehen solairuan edo 943 76 73 24 telefono zenbakian.

JARDUNEN AGENDA

ASTE BUKAERAKO AGENDA

Txapligu taldekoekin izango dituzte aste bukaeran Arrizuriagan, 16:00etan. Zapatuan, antzarraren jokoak; domekan, eskulanak; eta astelehenean, herri kirolak.

URBANOEN ORDUTEGIA

- San Lorentzo / San Juandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
- GERALEKUAK:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zuradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegaraieta / Olabarrenetik irteerak**
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
- GERALEKUAK:** Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN


'Miserableak', Musika Eskolaren 10. urtemugan

Musika Eskolaren 10. urtemuga ospatzeko, 150 bergarar inguruk *Miserableak* musikala prestatzen ziharduten 1993ko abenduan. Victor Hugoren *Les miserables* eleberrian oinarritutako musikalaren euskarazko bertsioa urtarrilean estreinatzea zen, Udal Pilotalekuan.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Aztartu"



Aztartu, arakatu.
—Oilluak etxazpi guztia aztartu dabe.
—Sasiarte ta errekazulo guztiak aztartu giñuzen, baiña ez giñuan topau ardixa.

GORKA ORTEGA.

HAUGIROA!

| | |
|---------------------------------|--------------|
| MINIMOA Eguaztena, 26 | 2 °C |
| MAXIMOA Domeka, 30 | 16 °C |
| ASTEKO EURIA (l/m²) | 106 L |

| | Max. | Min. | Euria |
|-----------------|-------|-------|-----------|
| Eguaztena, 26 | 12 °C | 2 °C | 40,6 l/m² |
| Eguena, 27 | 8 °C | 4 °C | 33,5 l/m² |
| Egubakoitza, 28 | 12 °C | 5 °C | 0,3 l/m² |
| Zapatua, 29 | 15 °C | 6 °C | 4,1 l/m² |
| Domeka, 30 | 16 °C | 12 °C | 13 l/m² |
| Astelehena, 1 | 11 °C | 6 °C | 2,4 l/m² |
| Martitzena, 2 | 9 °C | 5 °C | 12,4 l/m² |

San Juan auzoan jasotako datuak

ASTEKO FILMAK

'TE DOY MIS OJOS'

ZUZENDARIA: ICIAR BOLLAIN. AKTOREAK: LAIA MARULL, LUIS TOSAR.

HARIA. Pilar etxetik atera da, gauerdian, semearekin. Baina Ana ahizparekin egingo du topo, eta hark tratu txarrak jasotzen dituela jakingo du...

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; martitzenean, 19:30ean.

PUNTAUZIOA: ● ● ● ● ●



'SUITE HABANA'

ZUZENDARIA: FERNANDO PEREZ. MUSIKA: EDESIO ALEJANDRO.

HARIA. Kuban filmatutako dokumental hau aurtengo Donostiako Zinemaldiaren inaugurazioan eman zuten. Fernando Perezek Habanako hamar lagunenguz bizimoduaren berri ematen digu, erritmo lasaian. Egoera ezin gogoragoan bizi direnen egoera duintasunez azaltzen saiatzen da zuzendaria.

TOKIA ETA ORDUA. Zinekluba. Eguenean, hilaren 11n, 20:00etan.

PUNTAUZIOA: ● ● ● ● ●



Musika eta liburuak



Ibargarai 12 - 20570 BERGARA Tel.: 943 76 40 50 Faxa: 943 76 23 52
bergara@megadenda.com http://www.megadenda.com

GIZARTEA/ Alokairuan hartzeko etxe bila dabil Udala bost familiak kokatzeko

Urteaga 29ko familiek gutxienez bost hil eman beharko dituzte etxetik kanpora

MONIKA BELASTEGI

Aurreko eguaztena ezkerreko etxetik kanpora daude berriz ere Urteaga 29ko bost familiak. Eskusarte harrobia dagoen mendian lerradurak gertatu dira eta ondorioz, etxea uzteko erabakia hartu zuten Aldundiak. Baita GI-632 errepeidea itxteko ere.

Udalera igorritako ohar baten bidez eman zuten Foru Aldundiak hartzerako Urteaga kaleko mendian lerradura gertatu dela berriz. Aurreko asteburuan gertatu zen eta ondorioz, Urteaga 29ko bost familiak irtenarazi egin dituzte eta GI-632 errepeidea itxi segurtasuna bermatzeko asmoz. Izan ere, Aldundiaren arabera, egunotan erria diharduenez, areagotu egin daiteke mendia mugitzeko arriskua.

UDALA, ALOKAIRUAN HARTZEKO ETXE BILA

Eguaztena ezkerreko etxetik kanpora daude bost familiak; horietako batzuk Lasa ostatura eraman dituzte Udalak. Udaleko iturrien esanetan, gutxienez bost hilabete inguru eman beharko dituzte etxetik kanpora. Hori dela eta, ostatutik atera eta etxeetan sartzeko asmoa dituela aurreratu dute iturri berberak. Horretarako alokairuan hartzeko etxe bila dabilzala gehitu dute. Alokatu eta gero familiok etxeetan kokatzeko.

Etxebizitza horrez gain, Urteagan hainbat lantegi ere badaude, baina ez da egon horiek irtenarazteko beharrik. Izan ere, lerradura etxea dagoen alderantz izan da, eta ez lantegiak dauden alderantz. Hori dela eta, lantegiak arriskurik ez dutela azaldu dute Udala iturriek.



Errepidea itxita dagoen bitartean Ekialdeko saihesbidea erabili beharko dute ibilgailuek, ia zazpi kilometro gehiago Bergaratik Antzuolara joateko.

MONIKA BELASTEGI

Alokairuan hartzeko etxebizitza bila dihardu Udalak bost familiok kokatzeko asmoz

Horrekin batera, Antzuolarako errepeidea ere itxita egongo da arazoa konpondu arte, hau da, bost hilabete inguru. Bien bitartean Ekialdeko saihesbidea era-

Diputazioak dihardu mendia eusteko proiektua egiten: pisua kendu eta eutsi egingo dute

bili beharko dute ibilgailuek Antzuola aldera egiteko edo handik hona etortzeko.

Udaleko iturriek azaldu duteenez, aurreko astean Foru Aldun-

Bosten bat hilabetez Ekialdeko saihesbidea erabili beharko dute ibilgailuek

diko Azpiegituretarako Departamentuko ordezkariekin batzartu ziren, eta Aldundia arduratuko da mendia eusteko proiektua egiteaz. Izan ere, hori da egingo dute-

na, Udaleko iturrien esanetan: mendiari goitik pisua kendu eta ondoren eutsi.

BIGARRENGOZ ERREPIKATZEN DEN EGOERA

Maiatzean ere itxita egon zen GI-632 errepeidea eta orduan ere etxetik atera zituzten Urteagako bizi-lagunak. Orduan ere lur eta harri jauziak gertatu ziren, eta segurtasuna bermatzeko hartu zituzten neurri horiek. Lehenengo aldi hartan bi hilabetez egon zen itxita errepeidea eta familiek astebe-te eman zuten etxetik kanpora.

Urtarrilean aske laga eta gero, 'Kanto' berriz espexera

M.B.

Luis Mari Azkargorta *Kanto* berriz kartzelaratzeko agindua eman du Audentzia Zentralak. Eguaztenean jaso zuen kartzelaratzeko agindua eta eguen eguerdian Martutenen aurkeztu zuen bere burua.

Aurreko egunean, 13:00 aldera sartu zuten Luis Mari Azkargorta *Kanto* Martuteneko espexeran. Berriz kartzelara joan behar zuelako jakinarazpena egun bat lehenago (eguztenez, hain zuzen) jaso zuen.

Hala, 15 urte preso egon eta gero, urtarrilaren 7an atera zen kartzelatik baldintzapeko askatasunean, Ruth Alonso epailearen aginduz, zigorraren hiru laurdenak beteta.

Hala eta guztiz ere, Estatuako fiskaltzak helegitea aurkeztu zuen Bilboko epaitegiak hartutako erabakiaren aurka, eta Audentzia Zentralak erabaki du Azkargortak zigor osoa bete behar duela. Audentzia Zentralaren iritziz, Bilboko epaitegiak ez zeukan eskumenik Luis Mari Azkargortari baldintzapeko askatasunik emateko.

2007RA ARTE KARTZELAN

Gauzak horrela, Martuteneko kartzelan aurkeztu zuen bere burua eta espexean egon beharko du 2007ko abuztura arte.

1980an atxilotu zuten lehenengo. Lau hilabete eman zituen orduan espexean eta inkomunikatuta egon zen hamar egunetan tratu txarrak jaso zituela salatu zuen. 1988an berriz atxilotu zuten eta 15 urtean zazpi espexetan egon da: Sevillan eta Martutenen, besteak beste.

Askatasunak salatu du lege aldaketa hori dela presoak bizitza osoan kartzelan izateko.



Urtarrilaren 7an laga zuten aske, zigorraren hiru laurdenak beteta.

M.B.

Domekan hasiko dira Gabonetako argiak jartzen herriko kaleetan

MONIKA BELASTEGI

Gabonen atarian gaudela-eta, domekan ekingo diote herriko kaleetan Gabonetako argi apaingarriak jartzeari. Horrekin batera, erakusleho lehiaketa abian da eta oinarriak kalean daude.

Etzi, domeka, hasiko dira Gabonetako argi apaingarriak jartzen herrian barrena. Hainbat kaleetan jarriko dituzte: San Martin plaza, Bidekurutzeta, Espoloia, San Pedro, Artekalea, Arruriaga, Fraiskozuri plaza, Barrenkalea, azoka eta Mizpirualde. Horrekin batera, herrirako sarreretan eta Osintxu, Angiozar, Elorregi, Ube- ra eta Elosu auzoetan ere jarriko dituzte.

Bestalde, abenduaren 12an piztuko dituzte argioak, urtarri- laren 6ra arte. Aurrekontua, 19.200 euro ingurukoa da.

ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

Erakusleho lehiaketa ere abian da. Oinarriak kaleratu dituzte, dagoeneko, eta lehiaketan merkataritza establezimendu guztiak hartuko dituzte aintzat, izena eman beharrik gabe.

Erakuslehoak abenduaren 10etik 27ra bitartean prestatuta



Argiak jarri bitartean sor daitezkeen eragozpenak barkatzeko eskatu du Udalak.

egon beharko dira erakusketa- rako. Bestalde, sariak ematera- koan, kontuan hartuko dute publi- zitate mezuaren imajazioa, ori- ginaltasuna eta eraginkortasuna, kalitatearekin batera. Bestetik, Erakuslehoan establezimenduan saltzen diren ohiko artikulua-

agertu beharko dira, eta Udalak erregutzen du apaingarri gisa gorosti, goroldio, erratz eta izei naturalik ez erabiltzea.

Hiru sari egongo dira: 250 eurotako hiru sari eta erabakia abenduaren 19an emango dute jakitera.

Ozaetan hasi eta Labegaraietako industrialderainoko bidegorria egingo dute

M.B.

Hirigintza batzordeak bidegorria egitea erabaki du Ozaetan hasi eta Labegaraieta indus- trialde pareraino. Horrez gain, Osintxun etxebizitzak eraiki- tzeke Udalak zituen lursailak nori saldu erabaki dute.

Ozaetan hasi -Amilotx taberna- ren parean- eta Labegaraieta industrialderaino -Agirrebeña pareraino- bidegorria egitea era- baki du Hirigintza batzordeak. Gaur egun, industrialdetik Tei- leria pareraino eginda dago bide- gorria eta egitear diren berriak

jarraipena emango dio horri, kale- rako noranzkoan. Lanok 30.000 euro inguruko aurrekontua dute.

OSINTXUKO LURSAILAK ESLEITU DITU UDALBATZAK

Astehenean izandako ezohiko udalbatzak erabaki zuen Udalak lehiaketa bidez Osintxun saltze- ko zituen lur zatiak Krabelin Koop. Elkarteari esleitzea. Alder- di guztiek aldeko bota eman zio- ten proposamenari, Ezker Batuak izan ezik; abstenitu egin zen.

Guztira 625 metro koadro dira eta 124.100 euro inguruan esleitu dizkio Udalak esandako elkarte- ari etxeak eraikitzeke. Hala, Kra-

belin elkarteak 16 etxebizitzako blokea eraikiko du. Lur salmen- ta honen helburua da auzoko gaz- teei erraztasunak ematea etxea izateko orduan, hala auzoa laga beharrik ez izateko.

Horrez gain, osoko bilkura berean Osintxuko plazako zorua aldatzea onartu zuen udalbatzak. Altuna y Uria enpresari esleitu dizkiote lanok eta aurrekontua 68.256 euro ingurukoa da. Era- bakia alderdi guztien oniritzia- rekin onartu zuten.

Osintxuko plazako zoru berria jarriko dute kolektorearen hodiak sartzeko lanak bukatzen dituzte- nean.

LABUR

Bergarako Elkarriko tailerrak sinadura bilketa egingo du berriz bihar, zapatua

San Martin plazan izango dira sinadurak batzen bihar, zapatua. Bestalde, abenduaren 20an Bilbon deitu duen manifestaziorako autobusa antolatu du. Manifestazioaren leloa da: *Giza eskubide- ak eta herri borondatea errespetatu. Elkarrizketa eta akordioa pro- posamen guztien artean.* Izena 943 00 06 00 telefonoan edo gipuz- koa@elkarri.org helbidean eman daiteke.

Ardo eta cava dastatzea antolatu du BEKEK, Bergarako Emakume Kultur Elkarteak

Abenduaren 16an izango da, Artatse elkartearen, 18:30ean, eta sarre- rak 10 euro balio du. Dastatzea Mikel Garaizabal Elorrioko eno- logo eta somelierrak egingo du. Izenematea BEKEK Irizar jaure- gian duen bulegoan egin daiteke, martitzen eta eguenen goizetan eta eguazten arratsaldetan. Izena telefonoz emateko 943 76 07 95 telefonora dei daiteke.

CLINICA DENTAL

BERGARA

Bidekurutzeta 36, behea
Tel. 943 76 05 77


Hortz-protesia Implanteak

Odontologia helduendako eta umeendako
Hortz-estetika eta kirurgia
Umeendako tratamendua eta prebentzioa



Aseguruak: Ipresa, Sanitas, Asisa, DKV/Previa, Aegón, Guía de la Sanidad, Azkaran, Fremap, Asepeyo, Fraternidad, M. Universal eta Sermesa.

RPS 99/94




Santa Luzia egunerako afaria Strip-tease saioa eta diskoteka

San Juan auzoa Tel.: 943 76 35 51



IKASLE FRANTZIARRAK BERGARAN BISITARI

Arrasateko Institutuko eta Bergarako Ipintza institutuko Batxilergoko Frantseseko ikasleek Frantziako ikasle batzuekin elkartrukea egin dute. Apirilean Arrasate eta Bergarako 10 ikasle Saintes-era, Cognac ingurura, joan ziren, hango ikasleen familien etxetara; orain, frantziarrak egon dira Debagoienan. Saintestik hamar ikasle etorri dira, eta gustura ibili dira gure artean. Argazkian, frantziar eta euskaldun ikasleak ikastetxeetako arduradunekin batera, Ipintza institutuan.



SAN PEDROKO PORTIKOA JAIOTZAN

Simon Arrieta Zeramika Taldeko Iñaki Olabarriak eta Xabi Zabalak San Pedroko portikoa landu dute azken asteotan. Ohikoa denez, Gabonetan udaletxeko sarreran egoten den jaiotzari marko berezia ematea pentsatu zuten Xabik (argazkian) eta Iñakik. Horrela, buztina, egurra eta modu digitalean tratatutako argazkiak erabiliz, 1,5x1 metroko neurriko portikoa egin dute. Egunotan, portikoari azken ukituak ematen dabiltza bi artistok. Beraz, jaiotzako ohiko piezak (Maria Jesus Manzisidorrek egindakoak) San Pedro portikoan integratuta agertuko zaizkigu aurten. Jaiotza abenduaren 12an zabalduko dute, udaletxeko sarreran.



KONTXITA ITURRIA ERRETIRATU EGIN DA

Bergarako anbulatorioan 41 urtez lanean jardun duen Kontxita Iturria erizaina erretiratu egin da. Joan zen ostegunean, hilaren 27an, izan zuen laneko azken eguna eta anbulatorioko lankideek lore sorta ederra eta luntxa eskaini zizkioten. Lankide fina eta lagun hobea izan da Kontxita askorentzat, eta berarekin batera lanean ibilitakoek faltan sumatuko dutela adierazi digute. Hala ere, laster berriz egongo dira elkarrekin: urtarrilean agur afaria eskainiko diote Kontxitari. Zorionak!

Herran

ELEKTRIKAKO TRESNAK

Soinua, telebista, hozgailuak...

Matxiategi, 3

943 76 12 22

SUKALDEKO ALTZARIAK

Vegasa banatzaile ofiziala


Matxiategi, 4

943 76 37 53

vegasa



MINGAINARITIRAKA



Javi
Aranburu

ARANBURU HORTZ-KLINIKAKOIA

Hortz-protesiilea da Javi (31 urte), eta orain dela 3 urte Aranburu hortz-klinika zabaldu zuen. Berarekin batera beste bi lagun dabilta lanean. Ezkonduta dago eta orain dela hilabete eta erdi aita izan zen. Semetxoari Erik izena jarri diote.

Orokorrean, ondo zaintzen ditugu haginak?

Bai. Gazte jendeak batez ere haginaren higienarako kultura handiagoa dauka.

Beldur handiegia dizuegu dentistoi?

Gero eta txikiagoa. Nagusiak dira beldurtienak.

Eta kontsultan zeintzuk dira zintzoenak?

Umeak, 4 urtetik aurrerakoak. Eta emakumeak.

Urrezko legea haginak ondo zaintzeko?

Egunean hiru aldiz garbitzea eta hagineta haria erabiltzea.

Laneko gauzarik onena eta txarreana?

Jendearekin tratua. Txarreana, zenbaitetan ordutegiz kanpo lan egin behar izatea.

Lan gehien, noiz?

Udan eta Gabonetan izaten dugu lan gehien.

Txikitari zer izan nahi zenuen?

Bakeroa, John Wayne-ren modukoa.

Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu?

Palan jokatzeko eta emaztearekin eta umearekin paseatzea.

Liburu bat/Film bat/Musika talde bat edo kantari bat?

John Grisham-en edozein/*Braveheart*/Joaquin Sabina.

Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Bizi kalitateari.

Besteengan gehien estimatzen duzuna?

Egiazaletasuna.

Etxeko lanetan laguntzen duzu?

Bai, emaztearen eta bion artean egiten ditugu.

Janari eta edari bana?

Patata-tortilla eta espagetiak. Edateko, garagardoa.

Eta zer moduz moldatzen zara haur-oihalak aldatzen?

Ondo, baita biberioia ematen ere...

Gabonetako Loterian jokatzeko duzu? Sari handia irabaziko bazenu?

Zertxobait jokatzeko dut, gutxi. Bidaiatzeko aprobetxatuko nuke.

Bidaia bat, nora?

Udan Atenasko Olinpiar Jokoetara joango gara lau lagun. Hori.

EDU MENDIBIL

BERGARARRAK MUNDUAN

BEATRIZ LAZKANO

72 URTE / ERRETIRATUA / SANTA POLAN BIZI DA, ALACANTEN

“Bizimodu lasaia egiteko toki aproposa da Alacant, oso gustura bizi naiz hemen”

EDU MENDIBIL

Bergaratik aspaldi alde egin zuen arren, jaioterriarekin ez dela sekula ahazten diosku Beatriz Lazkanok. Gaur egun Alacanten bizi da, Santa Pola eta Torrevieja artean, hain zuzen ere.

Azken 10 urteotan Alacanten bizi da. Aurretik 23 urte eman zituen Valladoliden: “Bergaran lanean nenbilela, Valladolidetik lanera etorritako Jose Luis Garcia Santos ezagutu nuen. Arantzazun ezkondu ginen, 1970ean. Delineatzailea zen eta enpresa bat zuzentzen zuen Valladoliden. Nik lana utzi nuen eta Valladolidera bizi izatera joan ginen. Hiri erdialdean bizi ginen, eta ondo moldatu nintzen hango bizimodura. Urte zoriontsuak izan ziren. Pena bakarra daukat: seme-alabarik ez edukitzea”. Valladolidera joan aurretik, 20 urtez jardun zuen lanean Zerrajerako ekonomatari eta azken urteotan Labegarietako eta Barren-

“Alacantera etorri aurretik, ezkondutakoan, 23 urtez Valladoliden bizi izan nintzen”

kaleko ekonomatoetako zuzendaria izan zen Beatriz.

Senarraren gaixotasun arazo bat zela medio, 1993an Alacantera bizi izatera joan ziren. Torreviejan etxea erosi eta hara joan ziren Beatriz eta senarra: “Txalet handi bat erosi genuen eta Jose Luisek berak dekoratu zuen etxea. Zoritzarrez, handik gutxira hil egin zen eta ezin izan zuen behar den moduan egindakoak gozatu. Oso gogorra egin zitzaidan, baina aurrera egin beharra dago...”.

Alacant gustuko duela dio Beatrizek: “Bizimodu lasaia egiten dut. Orain dela sei bat urte ezagututako Andreas izeneko norvegiar batekin bizi naiz gaur egun, eta gustura gaudelkarrekin. Santa Polan atiko bat daukagu eta Torrevieja eta Santa Pola artean ibiltzen naiz. Elkarrengandik gertu daude bi herriak, 25 kilometro besterik ez dago, eta hara eta hona ibiltzen naiz autoarekin, nahiz eta gero eta beldur handiagoa dudan errepidean ibiltzeko”.

Beatrizek esaten duenez,

Santa Pola Torrevieja baino lasaia da: “Torrevieja izugarri hazi da azken urteotan. Negu partean 150.000 biztanle inguru izango ditu eta udan, berriz, 600.000 inguru. Udan zorramena da, jende mordoia etortzen delako Mediterraneo aldera. Santa Pola txikiagoa eta lasaia da, baita politagoa ere. Kaia eta bahia izugarri politak dira eta bada gaztelu eder bat ere. Atzerritar asko bizi da inguru honetan. Euskaldunak ere badira. Eguzkiaren bila jende asko dator hona, pertsona nagusiak batez ere. Maria Angeles eta Maria Josefa De La Granja nire aspaldiko lagunek ere apartamentua zuten hemen eta asko egoten nintzen beraiekin, baina etxea saldu zuten eta orain gutxiago etortzen dira...”.

Paseatzea da Beatrizen zaletasun handienetako bat. Arratsalde partean, berriz, lagunartean kafetxo bat hartzea gustatzen zaio. Eta Alacant hiriburura joaten dira noizean behin.

Urtean behin-edo etortzen da Beatriz Bergarara: “Lehen, koinatak Antxoni jatetxea zuenean, sarriago joaten nintzen, eta han elkartzeko ginen familiakoak. Hamar iloba daukat Bergaran, eta saiatzen naiz familiarekin harremanetan egoten. Eta Bergarako kontuak jarraitzea gustuko dut, zuen aldizkaritik eta helitzen zaizkidan egunkarietatik. Egunen baten Zerrajeran lankideak izandakoekin bazkari batean elkartu nahiko nuke, ilusio handia egingo lidake. Gabonak? Aurtentzen ez naiz Bergarara joango, Santa Polan geratuko naiz. Andreasen alabarekin eta bere familiarekin ospatuko ditugu Gabonak”.



Dietetika eta Nutrizio Kontsulta

- Osasun arazoak
- Etkez-etxeko zerbitzua
- Balorazio nutrizionala
- Ikastaroak
- Dieta pertsonalizatuak

(...) mireia alberdi
DIETISTA-NUTRIZIONISTA
(t) 943 76 60 45
(s) 646 43 34 58
(e) mireialber@euskalnet.net

Olaran etxea, herriko plaza 3
20577 ANTZUOLA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

FUTBOLA

Bergara eta Aloña Mendi taldeen arteko derbia bihar, zapatua, Agorrosinen

Lehen zortzi jardunaldietan Bergarak bi partidu irabazi ditu, eta biharko partidua erabakigarria da sailkapeneko azken postuetatik ihes egiteko

EDU MENDIBIL

Bihar, zapatua, Bergara eta Aloña Mendiren arteko partidua izango da Agorrosinen, 15:30ean. Oñatiarrak bergararren aurretik dira sailkapenean, lau puntu gehiagorekin. Bergara derbia irabazteko premian dago, sailkapeneko goialdeko taldeek alde ez egiteko.

Azaro beltza izan du Bergarak, eta bihartik aurrera bolada txarrari buelta eman nahi diote mahone-roek: azaroan jokaturako bost partiduetan bi puntu besterik ez dute lortu Juanina Garairen mutilek. Etxean bi berdinketa lortu dituzte eta etxetik kanpo hiru partidu galdu dituzte. Domekan 4-1 galdu zuen Bergarak Aretxabaletaren aurka. Juanina Garaik zera adierazi digu: "Aretxabaletak gehiegizko saria jaso zuen, ez baitzuen horrenbesteko meriturik egin. Bigarren zatian, 2-1 atzean ginela, baloiaren jabe izan ginen baina ez genuen ate aurrean asmatu. Eta Aretxabaletak ondo baino hobeto aprobetxatu zituen izandako aukerak. Kontraerasoan beste bi gol sartu zizkiguten, berdin-berdinak gainera". Iban Unanuek egin zuen bergararren gol bakarra, penaltiz. Bosgarren txartela jasotzeagatik, aurrelariak ezin izango du bihar jokatu. Jon Altzola eta Oskar Maiztegi, berriz, taldera itzuliko



Preferente mailako taldeak ez du azaroan partidurik irabazi, eta beharrezkoa du bihar Aloña Mendiri irabaztea.

dira bihar. Lesionatuta egon den Aritz Agirre ere baliteke jokatzeko moduan egotea.

Azken emaitza negatiboen ondorioz, Bergarak atzera egin du sailkapenean, 11. postura, hain zuzen ere. Hala ere, Garai entre-

natzailea baikor da eta taldeak gora egingo duela diosku: "Taldea onak daukagu eta konfiantza osoa daukat jokalarientzako. Behar bada baloia ez daukagunean ageribitate puntu bat falta zaigu, kontrako taldeari presioa egite-

ko. Baloia daukagunean, berriz, konfiantza falta nabaritzen dut".

BESTE HIRU PARTIDU ZAPATUAN

Zapatuan beste hiru partidu jokatuko dira Ipintzan: lehen mailako gazte taldeak Billabona har-

tuko du, 10:30ean; jarraian, 12:00etan, lehen erregional mailako Bergara eta Orioko taldeak izango dira aurrez aurre; eta arratsaldean, 17:30ean, Bergara eta Urki nesken arteko partidua izango da.

Agorrosinen aldagela berriak egiteko zain dago Udala kirolguneko lanekin hasteko

E.M.

Agorrosinen aldagela berriak egin arte Bergarako Udalak ez dio helduko kirolgune berriko lanei. Aldagelok gaur egun Ipintzan dauden ordezkoak izango dira eta Udala proiektua eta aurrekontua esku artean baditu ere, oraindik osoko bilkuran onartzeke dago. Valentin Egidazu kirol zinegotziak adierazi digunez, datozen egunotan gai horren inguruko erabakia hartuko dute: "Lehenbailehen egin nahi ditugu aldagelak, kirolgune berriko proiektuarekin hasi ahal izateko. Agorrosingo harmailaren ezker aldean, bariante aldeko txokoa, egin nahi ditugu aldagelak: 4 gela handi taldeek erabiltzeko, beste hiru txikiagoak entrenatzailerako, masajista eta epaileendako eta, horrez gain, beste bi gela: bata biltegia eta galdara jartzeko eta bestea bulego moduan era-

biltzeko. Aurrekontuak aztertzen gabiltza, baina lanek 360.600 euro (60 milioi pezeta) inguruko kostua izan dezakete, argiteriarekin dezente garestitzen baitira lanak. Osoko bilkuran onartu ondoren, ea urtarrilerako aldagela berriekin hasten garen".

UDALA ETA BKE HARREMANETAN

Esan bezala, behin aldagela berriak egin ondoren hasiko dira kirolgune berriko lanak. Lanak asko atzeratu dira dagoeneko, lehen fasea maiatzean hasteko asmoa baitzuen Udala.

Udaleko iturrien arabera, Agorrosingo futbol zelaian zer egin eztabaidatzen ari dira oraindik Bergara KErekin, eta horrek proiektua atzeratzea ekarri du. Agorrosinen belar artifizialeko bi zelai egitea da hasierako asmoa; zelai horiek zein neurrikoak izango diren ez dute adostu BKEk eta Udalak.



Agorrosingo txoko horretan egingo dituzte aldagela berriak.

MENDIA

Eskiko eta mendiko lizentziak egiteko epea Pol-Polen

Eski denboraldiari begira, eskiko lizentzia egiteko aukera dago Pol-Polen, aste barruan 19:00etatik 20:30era. Era berean, mendi federatu txartela egiteko interesa dutenek ere bertara jo dezakete. Argibideak: 943 76 48 51.

PILOTA

Herriko bi bikote Aretxabaletako finaleran

Igor Oruesagasti-Joseba Larrañaga bikotea Aretxabaletako esku pilotako finalerako sailkatu da. B mailan, berriz, Anartz Agirrek eta Xabier Larrañagak ere finala jokatuko dute. A eta B mailerako finalak abenduaren 13an jokatuko dira Aretxabaletako kiroldegian, 12:00etan hasita.

PILOTA

Gipuzkoako Txapelketako eta Gabon sariko partiduak gaur Udal Pilotalekuan

Gabon sarian benjamin, alebin eta infantil mailako pilotariak ari dira. Domekan ere partiduak izango dira Udal Pilotalekuan, 10:00etan

Gaur, egubakoitza, eta etzi, domeka, pilota partiduak izango dira frontoian. Gabon sarian eta Gipuzkoako Txapelketan buru-belarri ari dira herriko pilotariak. Gipuzkoan, senior mailako bikoteak finalerako sailkatzeko aukera du.

Gipuzkoako klubuen arteko txapelketaren barruan, bi partidu izango dira gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 20:00etan. Lehen kadete mailan, Aitor Osadier Aldai bikoteak San Esteban taldeko bikotearen aurka neuruko ditu indarrak. Jarraian, bigarren senior mailan, Bergara eta Ikasberri taldeko bikoteak izango dira aurrez aurre. Bergara KEren partetik Igor Apraizek eta Beñat Inarrak jokatuko dute. Partidu horien aurretik Gabon sariko bi partidu izango dira Udal Pilotalekuan, 19:00etan. Eta domekan ere Gabon sariko partiduak jokatuko dira, 10:00etan.


Gabon sarian benjamin, alebin eta infantil mailako pilotariak ari dira. Bergara KEko pilota sailleko arduradunen arabera, gaztetxoaren artean pilotarako zaletasuna piztea da helburu nagusia.

Kadete, gazte eta senior mailako pilotariak ere lehiatuko dira Gabon sarian. Finalak Gabonetan jokatuko dira.

SENIORRA, FINALERAKO LEHIAN

Gipuzkoako Txapelketan, senior mailako bikotea da finalerako sailkatzeko aukera duen bakarra. Edu Samaniegok eta Igor Gutierrezek 22-8 irabazi zioten Eibarko bikoteari eta aurreko astean, berriz, Amezetan galdu zuten, 22-16. Ligaxkan geratzen zaizkien bi partiduak irabazi beharko dituzte abenduaren 19ko finalean egon nahi badute.

Domekan, Bergaran, Aritz Unzueta-Markel Aldai kadete mailako bikoteak antzularren aurka galdu zuten (6-22) eta Joseba Herranek ere Bearzanako ordezkariaren aurka galdu zuten, senior mailan (16-22).



Aritz Untzuetak eta Markel Aldaik (ezkerrean) Antzularren aurka galdu zuten domekan, 6-22.

OLAIA MONDRAGON

Blancok eta Gonzalezek brontzezko domina lortu zuten

Bergara Shotokan taldeko Rakes Blancok eta Jon Gonzalezek brontzezko domina lortu zuten domekan Bergaran jokatuako Euskadiko Karate Txapelketan. Biak kadete mailan lehiatu ziren.


Rakes Blancok katetan lortu zuen hirugarren postua. Beraz, Gipuzkoako Txapelketan lortutakoa hobetu zuen. Irunen jokatuako txapelketan laugarren postuan sailkatu baitzen. Jon Gonzalek, berriz, kumitetan, 70 kilotik behekoen arteko borroketan, esku-

ratu zuen hirugarren postua. Markel Larrañaga, Unai Zabarte eta Miren Laskurain ere ondo aritu ziren domekan, baina ezin izan zuten dominarik eskuratu.

IKUSLE UGARI KIROLDEGIAN

Goizean goizetik junior eta kadete mailako karatekak ikusteko aukera izan zen Labegaraletako kiroldegian. Jende dezente hurbildu zen bertara Euskadi osoko karateken saioak jarraitzeko.

Shotokan taldeak bigarren aldiz lortu du Euskadiko txapelketa Bergarara ekartzea. Taldeko arduradunak pozik azaldu dira jasotako erantzunarekin.



Karatekak kumitetan, borroketan, eta katak egiten aritu ziren kiroldegian.

OLAIA MONDRAGON

FUTBITOIA

Aste bukaeran ez da egongo futbitoko partidurik

Kiroldegian hainbat lan egiten ari direla eta, aste bukaeran ez da futbitoko txapelketako partidurik jokatu.

ESKUBALOIA

Senior mailako taldeak Deustuaren aurka galdu zuten

Bergara KEko senior mailako gizonen eskubaloi taldeak 28-33 galdu zuten Loiola Deustua taldearen aurka, zapatuan, kiroldegian.

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

KONDE PANADEROKUA




Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara



Lehenengo aldia da Balmasedako Kolutza abesbatzak emanaldia egingo duena Bergaran.

Bizkaiko taldearen aurretik Aritzeta abesbatzak lau kantu egingo ditu

Balmasedako Kolutza koroaren emanaldia bihar

MONIKA BELASTEGI

Balmasedatik, Bizkaitik etorriko da Kolutza abesbatza emanaldia egitera. Santa Marina parrokian egingo du emanaldia bihar, zapatua, 20:00etan. Aritzeta abesbatzak ere parte hartuko du emanaldi horretan; Kolutzari sarrera emango dio.

Aritzeta abesbatzak irekiko du emanaldia eta lau kantu egingo ditu. J. Dominguezen *In the first light*; J. Trayter-en *El abanico*; J. Dominguezen *The lion sleeps tonight* eta Virty Maragnoren *Carnavalito quebradeño*.

Aritzeta ondoren Kolutza taldea ezagutzeko aukera izango dute hurbiltzen direnek; izan ere, lehen aldia da Balmasedako taldea Bergarara etorri eta ema-

naldia egingo duena.

Toribio Irureta presbiterioak sortu zuen korua 1954an, eta 1965a ezker, Tomas Negro Jaurerik zuzentzen du. Ibilbide luze horretan, hainbat emanaldi egin dituzte Euskal Herrian zein kanpoan. Horrez gain, TVEn ere abes-

tu izan dute, zuzenean, Jose Maria Iñigok aurkeztzen zuen *Fantástico* saioan. Bihar egingo duen emanaldian zortzi lan egingo ditu Kolutzak eta saioa bukatu ondoren, Aritzetaekin batera kantu bat egingo du.

Egitaraua

- 'Heiling ist der Herr'(Frank Schubert)
- 'Set me as a Seal'(John Leavit)
- 'Wachet auf, ruft uns die Stimme' ... (J. S. Bach)
- 'Válgame Dios'(Alejandro Yagüe)
- 'Grazie Mamma'(Mov. Focolar)
- 'Nortxu'(Retana)
- 'Nerea izango zen'(J.A. Artze / arm. J. Busto)
- 'Kitolis'(Luis Aranburu)

Oihulari Klown eta Trokolo taldeen emanaldia Zabalotegin

MONIKA BELASTEGI

Oihulari Klown eta Trokolo antzerki taldeek elkarlanean *De profesión: Princesa* antzez-lana egingo dute gaur, egubakoitza, 22:30ean, Zabalotegin. Hurbiltzen direnek barre egiteko aukera izango dute.

Oihulari Klown eta Trokolo antzerki taldeek elkarlanean egindako lana da *De profesión: Princesa*. Calendularen -Isabel Aisa- eta Muxutrukaren -Raquel Imaz- ibilerak kontatuko dizkigute Virginia Imazen gidoian oinarrituta.

IPUINEZ IPUIN LAN BILA

Calendula eta Muxutruka lanik gabe geratu dira. Lanean ziharduten azkeneko ipuinetik, Mari Errauskinetik bota egin dituzte. Badirudi gaueko hamabiak jo eta Mari Errauskinek zapata galdu

zuzenean, dantza hartan zeuden gonbidatu guztiek zapata bana kendu eta dantzaleku erdi-erdi-ra bota zituztela. Gertakari horren errua Calendula eta Muxutrukarena izan ei zen. Hori dela eta, ipuin horretatik bota egin zituzten eta langabezian daude, beste ipuin klasiko batean noiz parte hartuko zain.

Emanaldia gaur, egubakoitza, izango da, 22:30ean, Zabalotegi aretoan. Sarrerari dagokionez, arrunta 6 eurokoa da, 26 urtetik beherakoenak 4,5 euro balio du eta 17 urtetik beherakoenak, berriz, 2 euro.

Oihulari Klown eta Trokolo antzerki taldeen hainbat obra egin dute lan elkarrekin, besteak beste, *Las Dignas* eta *Pekin 36.002* lanetan. Bestalde, bi protagonistak, Isabel Aisak eta Raquel Imazek ere maiz jardun dute elkarrekin *klown* gisa beste emanaldi batzuetan.



Isabel Aisa (goian) da Calendula eta Raquel Imaz (behean), berriz, Muxutruka.

Musika Eskolako ikasleen kontzertua martitzenean

M.B.

Musika Eskolako ikasleek emanaldia egingo dute datorren martitzenean, abenduaren 9an, 19:00etan, Udal Pilotalekuan, Gabonen atariko emanaldia izango da, eta irakasleek ere joko dute emanaldian.

Musika Eskolako ikasleek eta irakasleek, guztiek egingo dute emanaldia datorren martitzenean. Ikasleek urtero egiten dute halako emanaldiren bat, Gabonen atarian gaudela kontuan izanda. Irakasleek, aldiz, ez. Lehenengoz hartuko dute parte guztiek elka-

rrekin halako emanaldi batean, eta irakasleek azaldu dutenez, horren arrazoia da ikasleei erakustea instrumentua irakasteaz gain, eurak ere jo egiten dituztela instrumentuok.


200 IKASLE INGURUK HARTUKO DUTE PARTE KONTZERTUAN

Ikasle askok hartuko dute parte emanaldian. 200 inguruk, hain justu ere, taldean banatuta.

Zazpi atal izango ditu kontzertuak. Lehenengoan, biolinek hartuko dute parte, Suzuki taldeak, hain justu. Josune Ena dute irakasle eta 4 eta 6 urte bitarteko 15 umek osatzen dute taldea. Biga-

rrenean, Musika Eskolako irakasleek jardungo dute; hirugarrenean, haurren abesbatzak; laugarrenean, akordeoi orkestrak; bosgarrenean, gazteen bandak; seigarrenean, orkestra sinfonikoak; eta emanaldiari amaiera emateko, hainbat taldek elkarrekin jardungo dute: akordeoi orkestrak, gazteen bandak, orkestra sinfonikoak, haurren abesbatzak eta koral, aurre hizkuntza eta hizkuntza musikaleko ikasleek, hain justu.

Bestalde, 20. ikasturtea bete du aurten Musika Eskolak, eta iraila ezker zuzendari berria du: Maria Jesus Ugalde, hain zuzen.



Musika Eskolak 20. ikasturtea bete du aurten.

GUREGAIK/ GAZTETXEKO EKINTZAK

Jardunaldia, zinema eta kontzertua asteburuan

E.I.

Bergarako gaztetxeak zenbait ekintza antolatuko ditu abenduan zehar. Asteburu honetan Los Chicos Boom eta Los Cretinos taldeen kontzertua, Askatasun Jardunaldia eta zinema emanaldia izango dira.

Asteburu honetan gaztetxera joaten direnek ez dute aspertzeko denborarik izango. Egubakoitzean Los Chicos Boom eta Los Cretinos Arrasateko taldeek kontzertua eskainiko dute, gaueko 22:30ean. Bi taldeok rock musika egiten dute. Los Cretinos nahiko talde berria da, baina Los Chicos Boom taldeak urtetako esperientzia dauka. Taldekideek, lehen,

Fase Terminal taldea osatzen zuten; abeslaria aldatzean, berdinekin zuten izenarekin ere. Ingelesekin abesten dute gehienbat, eta bertsiu ugari egiten dituzte.

Zapatuan, berriz, Askatasun Jardunaldia egingo dute gaztetxean, 19:00etan hasita. Grezian, Thessalonika hirian izan ziren atxiloketei buruzko bideo-emanaldia egongo da, eta, ondoren, antzerki saioa. Imagina Que No Zaragozako taldeak *La puta en el manicomio* lana aurkeztuko du.

Azkenik, zinema-zaleendako gai sozialen inguruko filmak emango dituzte gaztetxean abenduan zehar. Domeka honetan, 18:00etan, *Caminantes* eta eguaztenean, 19:30ean, *Generación robada* ikusi ahal izango dituzu.



Los Chicos Boom talde arrasatearra, kontzertuan.

IKER BARANDIARAN

LOTSABARIK/ Josu Agirre

“Skate parkea falta dugu herrian”

E.I.

Josurekin hitzordua jartzea ez da erraza izan, mila ekintza egiten baititu. Eskubaloian jokatu eta umeak entrenatu, patinetean ibili, Realaren partiduetara joan... Gainera, zoro xamarra dela dio berak.

- Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke?
Entseatzeko lokalak eta skate parkea jarriko nituzke herrian. Nire lagunek musika taldeak dituzte eta ez dute non entseatu, lokalak behar dituzte.
- Zure karpetan zer irudi edo pegatina daukazu?
Patineteak.

- Telebistako saioren gorrotagarriena? Eta gustukoena?
Gorrotagarriena *Operación Triunfo*. Gustukoena, aldiz, *Los Simpson*.
- Pertsonaia higuinagarriena? Eta gustukoena?
Atletico Madril taldeko edozein iruditzen zait higuinagarria. Gustukoena Chet Thomas dut, skater estatubatuarra.
- Zerk amorratzen zaitu?
Atzetik gaizki esaka eta gezurretan ibiltzeak.
- Zer estimatzen duzu bestengan?
Laguntasuna eta eskuzabaltasuna.
- Zeri ematen diozu lehentasuna bizitzan?




- Ikasketei, lanari eta lagunei.
- Zure bertute bat? Eta akats bat?
Zoro xamarra eta alai izatea dira nire bertuteak. Akatsa, azkarregi haserretzen eta pikatzen naizela.
- Zelan ligatzen duzue gazteok?
Parrandetan.
- Zure bikotekide ideala zela-koa izango litzateke?
Leiala, alai eta, ni bezala, zoro xamarra.
- Nora eta norekin egingo zenuke bidaia bat?
Hawaijira edo Jamaikara joango nintzateke, lagun batekin.
- Etorkizunerako amets bat?
Realak Europako Liga irabaztea.



ADINA: 17 urte • IKASKETAK: Batxilergoko 2. maila • ZALETASUNAK: Eskubaloia eta patinetean ibiltzea • LIBURU BAT: Ez zait gustatzen irakurtzea • FILM BAT: *American pie* • MUSIKA TALDEA: Jousilouli • KIROL TALDEA: Reala

TRABIRAKA/ izenaxxxxxxxxxxxx

EAE KO PARLAMENTUKO...



ZAHARRAKBERRI

Alargunen Elkarteko bazkideek urteko bazkaria egingo dute astelehenean

E.M.

Azken urteotan ohikoa den moduan, Bergarako Alargunen Elkarteko lagunek urteko bazkaria egingo dute astelehenean, abenduaren 8an. Alargunen Elkartea herriko emakumezko alargunen topaleku izan da 1978a ezker. Gaur egun, 80 bazkide inguru dira.

Abenduaren 8an ospatzen dute elkartearen eguna, eta astelehenean urteko bazkaria egingo dute Sirimiri jatetxean. Euskal Herrian sortutako lehenengotako alargunen elkartea izan zen Bergarakoa. Udalaren, Alkartu Nairen, herriko aurrezki kutxen eta hainbat partikularren laguntzari esker 1978. urte aldera eratu zen elkartea. Aitonak elkartea Boni Laskuraineko egoitza berri pasatzerakoan, Alargunen Elkartea hartu zuen seminarioko lokala. Ordutik hona bikoiztu egin da Alargunen Elkarteko bazkide kopurua. Gaur egun, 80 bazkide ditu elkartea. Mertxe Lazkanok eta Maritxu Berasategik elkarteko presidente lanak betetzen dituzte.

Egunero joaten dira Seminarioko lokalera eta 18:00etatik 21:00ak arte hainbat bazkide elkartzen dira, lagunartean solas egiteko edo kartetan jokatzeko. Garai batean Alargunen Elkartea herriko hainbat ekintzatan parte hartzen zuen.

Astelehenean 40 lagun inguru izango dira Sirimirin egingo duten bazkarian.

PENSIO DUNEN ALDE SINADURA BATZEA

Bestalde, pentsionisten eta aurrez erretiratuen Appalde Debagoieneko elkartea sinadurak biltzen dihardu. Pentsio dūinagoak aldarrikatzen ditu Appaldek: alargunen pentsioen kasuan, gutxienez hileko 600 eurokoa izatea eta erre-

gulazio-oinarriaren %70 aplikatzea eskatzen dute. Aurrez erretiratuen langileei dagokienez, 65 urtetik gorakoek %100 jasotzea

eskatzen dute 35 urtez kotizatu dutenen kasuan. Murrizte koefizienteen desagerpena eskatzen dute, aurrez erretiratutakoei urte

bakoitzeko %7-8 bitarteko murrizketa aplikatzen zaie-eta.

Boni Laskurain kaleko erretiratuen egoitzan jasotzen dihar-

dute sinadurak. Appaldekoekin harremanetan jartzeko interesa dutenek Regino Valleri (943 76 27 12) dei diezaiokete.

Deutsche Post  World Net
MAIL EXPRESS LOGISTICS FINANCE



Indartsuago.

Mundu-mailan estandar berri bat sortu da Espres-zerbitzuei, merkantzien garraioari eta logistikari dagokienez. Guipuzcoana Euro Express, paketeen alorrean Europako buru dena, DHL Worldwide Express, aireko garraio espresetan munduko buru dena eta Danzas, aireko eta itsasoko zamen alorrean munduko buru dena DHL markapean bildu dira are hobe den osoko zerbitzua eskaintzeko. Orain, eskaintza, zerbitzu eta aukera gehiago jartzen ditugu zure eskura munduko 220 herrialde baino gehiagotan. Zure beharrak edozein direla ere, horiei erantzuna emateko prest gaude. Jar zaitetz gurekin harremanetan eta DHLren indar osoa izango duzu zure negozioaren zerbitzura.

*Alargunen Elkartea
emakumezko
alargunen topaleku
izan da 1978a
ezker*

*Gaur egun 80
bazkide inguru ditu
elkartea, eta urteko
bazkarian 40 bat
elkartuko dira*

DHL Express Bergara
San Juan Erreka 33
20570 - Bergara
Tel.: 943 763 642
Faxa: 943 765 425

MUNDUA MUGITZEN DUGU 

BERGARAROSPETSUAK

Koldo Eleizalde (1)

KOLDO PEREIRA

Koldo Eleizalde Bergaran jaio zen 1878ko ekainaren 9an. Batxilergoaren lehen urteak aita domingotarren ikastetxean egin zituen eta azken urteak Zaragozako jesuiten ikastetxean. Zientzietako lizentziatura egiten hasi zen Zaragozako unibertsitatean, eta ondoren Madrilen bukatu zituen ikasketak. Gasteizko institutuko Matematika katedra lortu zuen oposizio bidez, eta han jardun zuen Bizkaiko Foru Aldundiak irakaskuntzako ikuskatzaile izendatu zuen arte. Auzo-eskolak sortzen eta eskola horietarako testuak prestatzen lan bikaina egin zuen.

Bizitza gehiena jaioterritik kanpo eman zuen arren, bere lanetan behin eta berriro gogoratzen eta aipatzen ditu bai *Bergara* -hala idazten zuen beti- bai bere herriko euskara berezia. 1918tik aurrera euskaltzain osoa eta Eusko Ikaskuntzako kide osoa izan zen.


Euzko Alderdi Jeltzaleko kide izan zen gaztetandik, eta Sabino Arana Goiriren jarraitzaile sutsua. Artikulu ugari idatzi zituen aldizkari nazionalistetan eta hainbat epaiketa eta espetxeratze jasan zituen.

1918tik aurrera euskaltzain osoa eta Eusko Ikaskuntzako kidea osoa izan zen



ARTXIBOA

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Zein bi kaletan daude farola horiek?

GALDEDEBALDE

1. Zein baserrikoa da Agurtzane Diaz EHNEko kidea?
 A/ Zubi Goikoa.
 B/ Eduegi.
 C/ Loidi.
2. Bergarako futbol taldeak Aretxabaletan galdu zuen domekan. Zelako emaitzarekin?
 A/ 3-1.
 B/ 3-2.
 C/ 4-1.
3. Zein da Bergarako Musika Eskolako zuzendaria?
 A/ Alfredo Gonzalez.
 B/ Maria Jesus Ugalde.
 C/ David Azurtza.



AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

JOSE MARI AKIZUrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Jose Mari!
 Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: **San Pedro** / Galde debalde: 1-C, 2-C, 3-A.



Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela erabiltzeko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO** BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

La Gula del Norte

200 g-ko erretilua

4,60€

765 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

MUJIK FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

DEBA GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Teleforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

LAKET

gizon & emakume

Barrenkalea 35
 BERGARA

CAMACHO

Drogeria Usaindegia

Bidekurutzeta 24
 BERGARA
 943 76 13 35



BERGARA
Enaitz Azkarateaskasua
Abenduaren 5an, 2 urte.
Zorionak! Etxekoak.



BERGARA
Andrea Rubio
Abenduaren 9an, 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Kepa Altolarrigirre
Abenduaren 8an, 3 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Ainhoa Narbaiza
Azaroaren 29an, 11 urte.
Urte askotarako!
Kuadrilakoen partez.



BERGARA
Mireia Arana
Abenduaren 5an, 7 urte.
Urte askotarako!
Julen eta familiakoak.



BERGARA
Inmaculada Garcia
Abenduaren 11n, urteak.
Urte askotarako!
Isa eta familia.



BERGARA
Enrike Gardoki
Abenduaren 11an,
38 urte.
Zorionak! Familiakoak.



BERGARA
Endika Gardoki
Abenduaren 13an, 6 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Juan Luis Axpe
Abenduaren 21an,
38 urte.
Zorionak! Familiakoak.



BERGARA
Txomin Larrañaga
Abenduaren 11n, 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.




BERGARA
Uxue Murgiondo
Abenduaren 4an, 6 urte.
Zorionak! Etxekoak,
lagunak, Jone eta Danel.



BERGARA
Unai Fernandez
Abenduaren 5ean, 2 urte.
Zorionak! Aiton-amonak
eta izebak.



BERGARA
Julen Azkarate
Abenduaren 8an, 5 urte.
Urte askotarako!
Familia.



BERGARA
Unai Egaña
Abenduaren 7an, 8 urte.
Urte askotarako!
Familia.



BERGARA
Irati Alberdi
Abenduaren 2an, 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak, bereziki Unai.



BERGARA
Andoni Calbano
Abenduaren 11n, 3 urte.
Urte askotarako! Itxaso
eta aiton-amonak.


Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAren agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

Adi!

Argazkiak emateko
lekuak:
Bergara:
Berrigara, Irizar jauregia,
Barrenkalea 33
Antzuola:
Udal Liburutegia,
asteleheneran
17:00etatik 19:00etara
Elgeta:
Erosle-Balxongua



AZAROAREN 21KO APATXIKO ERANTZUN ZUZENAK:

LOTU MARRAZKIXAK ESALDIXEKIN
1-(E) 2-(D) 3-(B) 4-(A) 5-(C) 6-(J) 7-(I) 8-(G) 9-(F) 10-(H)

GURUTZEGRAMA

Oharra: barkamena eskatzen dotsuegu erantzun orrikan
zeren akatsengaittik: sendoa/sendua, Olentzero osatzeko
ezintasuna...

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | S | E | N | D | O | A |
| | | | L | | | |
| 2 | | E | R | B | I | A |
| | | | L | | | |
| 3 | | | T | R | U | F |
| 4 | I | K | A | T | Z | A |
| | | | E | | | |
| 5 | | I | P | U | R | T |
| | | | A | R | G | I |
| | | | O | | | |

AITA-AMEK EGITTEKO ARIKETIA

- Aukeratu egokixena.
- 1- Aitorrek Mirarik bezalako / moduko motxillia dauka.
 - 2- Zuk baiño azkarrago idazten dau Andonik.
 - 3- Zuriaren moduko jertse bat erosi dot.
 - 4- Ni baiño azkarragoa da antxintxika.
 - 5- Zelako ondo ibilli giñan atzo.
 - 6- Hik baiño gutxiago jaten juat nik.
 - 7- Xabierrenaren moduko disfrazta egin dau Mikelek.
 - 8- Gure moduan, harek be kotxia erabili biharrian, autobusa erabiltzen dabe.

Zorionak Paulo eta Amaia!

Haiei egokitu zaizkie 'Apatxi'-ko 7. aleko lehen sariak!

Apatxiko zazpigarren aleko sariketan

Paulo Garitanok eta Amaia Uriartek irabazi dituzte bi sari nagusiak.
Paulok eta Amaiak *Gipuzkoa zure esku* mahai-jokua eskuratu dute.

Horrez gain,

Manex Bengoa (*San Martin*) Ainhoa Irizar (*Mariaren Lagundia*) Irati Eguren (*Aranzadi Ikastola*)
Aitor Murillo (*Mariaren Lagundia*) eta Maika Gallastegi (*Aranzadi Ikastola*) ikasleek
Ume txikientzako kantu eta jolasak liburuxka bana jasoko dute.

APATXI-REN HURRENGO ALEA, GABONEN OSTEAN BERRIGARAN!
Beraz, adi egon! Bitartean, ondo pasa!

ALBAITARIAK

ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman) Zurradero 6, behe. 943 76 70 67 / 607 48 71 19

ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak) 943 76 43 29 / 609 54 16 13

ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albaitari ofiziala) 943 76 43 29 / 609 54 16 13

IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak) Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA Isabel Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN Victor Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23

ARAMBURU HORTZ KLINIKA Telesforo Aranzadi 1. 943 76 02 46

ASTIAZARAN SOLOZABAL Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95

BERGARA HORTZ KLINIKA Bidekurutzeta 36, behe. 943 76 05 77

GOROSABEL J. Alberto Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88

CAVIGLIA Silvana S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54

IRIARTE Idoia Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65

SAINZ Ana Herriko plaza 4, ANTZUOLA. 943 78 71 69

TRIPALDI Enrike Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76

DIETISTAK

ALBERDI Mireia Olanan etxea, Herriko plaza 3, ANTZUOLA. 943 76 60 45 / 646 443 34 58

ERREHABILITAZIO FISIKOA

LOPEZ DE MUNAIN Francisco J. Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

FISIOTERAPEUTAK

ARZAK Miren (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

BASTERRETXE, Maria Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

HOMEOPATA

GANUZA Susana Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

HORTZ-PROTESIKOAK

MARTINEZ Begoña Bidekurutzeta 10. 943 76 39 21

MASAILARIAK

AZPEITIA Irupe Ibargarai 44, behe. 943 76 73 43

CASANELLAS Jabier Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78

ETXEBERRIA Ana Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

BENITO Isabel Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62

MEDIKUNTZA OROKORRA

OXIRONDO KONTSULTATEGIA Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50

PODOLOGOAK

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA Ikerleku Zeharbidea z/g. 943 76 07 84

AZPIAZU Arantzazu Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

PSIKIATRA

GALLASTEGI Pablo San Martin Plaza 2, 1-ezk. 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80

URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13

ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

YOGA

SAMADHI YOGA Masterreka 13, behe. 943 76 11 38 / 639 235 753

BERGARAKO
OSASUN GIDA
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko abenduaren 5a / 181. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Antzuolako erretiratuek Mizpirualde egoitzakoei astelehenerak alaitzen dizkiete

ENEIDA ITURBE

Antzuolako erretiratuek ekintza kulturalak egiteaz gain sozialagoak ere egiteko beharra ikusi zuten duela bi urte inguru. Ordutik hona, Bergarako Mizpirualde egoitza bisitatzeko astelehenero, han daudenei arratsaldeak atseginagoak egiteko asmoz.

Astelehen arratsaldeak bereziak izaten dira Bergarako Mizpirualde egoitzan; hango bizilagunak kantuan egiteko biltzen dira, eta, gainera, Antzuolako erretiratuen bisita jasotzen dute. Antzuolako lau edo bost lagun joaten dira egoitzara. Han dauden herritarrak bisitatzeko dituzte lehenengo, eta, ondoren, normalean bisita askorik jasotzen ez duten bizilagunekin pasatzen dute arratsaldea, pasean eta berriketan.

Bi urte inguru daramatzate erretiratuek astero Mizpirualdera joaten. Ekimen hau Erretiratuen batzordean sortu zen. Asintxio Azkarate batzordeko presidentek azaldu duenez, ekintza kulturalak antolatzeaz gain sozialagoak ere egiteko beharra ikusi



Facunda Laskurainek gustura hartu zituen herritarrak pasa den asteleheneran.

zuten. Antzuolako gizarte-laguntzailearekin hitz egin zuten eta hark proposatu zien Mizpirualden borondatezko lana egitea. Hala, hogeita hamahiru lagun

elkartu ziren eta txandatan joaten dira Mizpirualdera, lau edo bost lagun astean. Asteleheneran, arratsaldeko 17:00etatik 18:30ak arte izaten dira han.

Hara heldutakoan lehen lana gizarte-laguntzailearekin hitz egitea izaten da. Hark esaten die nork duen bisita jasotzeko beharra. Eurekin igarotzen dute arra-

“Ordu batzuez burua egoera tristetik aldentzen laguntzeko joaten gara egoitzara”

tsaldea, Juanita Zabalok esan bezala, “burua egoera tristetik aldentzen laguntzeko”.

Mizpirualden dauden antzuolarrak ere bisitatzeko dituzte, noski. Haien gustura hartzen dituzte herritarrak. Horren adibide da Facunda Laskurain. Pasa den asteleheneran irribarretsu hartu zituen gelara joan zitzaizkion lau lagunak, eta kontu-kontari ibili ziren.

BOLUNTARIOAK BAINO GEHIAGO

Juanita Zabalok azaldu digunez boluntario izatea eta boluntariotza ez dira gauza bera. Boluntariotzak borondatea baino gehiago eskatzen du; ikasten eta birziklatzen joatea, hain zuzen ere. Boluntariotza egiten duten antzuolar horiek meriturik, behintzat, ez dute falta.

ERREPIDEA

Bost edo sei hilabeteetan egongo da itxita Bergarako sarrera

ENEIDA ITURBE

Bergarako Urteaga kalea itxi egin dute berriz. Oraingoan, gainera, bost edo sei hilabetez egongo da horrela, Foru Aldundiak mendiari eusteko lanak egin bitartean. Antzuolako Udalak Aldundiko arduradunekin hitz egiteko asmoa dauka proiektua ezagutzeko.

Bergarako Urteaga kalea pasa den asteko eguazten gauean itxi zuten, Eskusarte harrobian

auriak eragindako lur eta harri erorketak zirela eta. Urteagako 29. zenbakiko biztanleek etxeak utzi behar izan zituzten eraikin hori arriskuan zegoelako. Harrobiak eraikin horretarantz mugitzeko joera dauka.

Foru Aldundiak mendiari pisua kendu eta hari eusteko asmoa du. Horretarako proiektua egingo du lehenengo eta, ondoren, lanekin hasi. Bost edo sei hilabetez, behintzat, autoak ezin izango dira Urteaga kalean ibili, itxita jarraituko du eta.

ANTZUOLARREI BEREZIKI ERAGITEN DIE

Datorren hilabeteetan Antzuolatik Bergarara joateko saihebidia erabili beharko da. Horrek egin beharreko bidea ia bikoiztu egiten du. Entzun dira herritarren lehen kezak; izan ere, kale hori ixten duten hirugarren aldia da.

Herritarrei bereziki eragiten die, hortaz, itxiera horrek. Hori dela eta, Udalak Gipuzkoako Aldundiak azalpenen bat ematea espero zuen. Ez da hala izan, eta orain Udala bera jarriko da Aldundiarekin harremanetan.

LABUR

Talleres Antzuola egon zen eraikineko bi horma zutik utziko dituzte

Aurreko zenbakian, Talleres Antzuola egon zen eraikina bota egingo dutela argitaratu genuen. Hala egingo dute, baina etxearen balioa dela eta, bi horma bere horretan utziko dituzte. Kalegoi aldeko horma eta Ondarrera begiratzen duena zutik utziko ditu enpresa eraikitzaileak. Aldiz, erreka aldeko horma eta eraikinaren barne aldea bota egingo ditu. Urtarrilean egingo dute lan hori. Enpresa eraikitzailearen asmoa da han etxebizitzak egitea.

EHNA egiteko aukera izango da Antzuolako udaletxean abenduaren 14an

Euskal Herriko Naziotasun Aitorpena, EHNA, eskatzeko aukera izango dute antzuolarrek abenduaren 14an, domeka. Agiri hori eskuratu nahi duenak hiru argazkirekin joan beharko du udaletxera, eta 15 euro ordaindu beharko ditu. Bai Euskal Herriari taldeak antolatuko du ekimena. EHNA egiteko ordutegia ondorengo izango da: 11:00etatik 13:00etara eta 18:30etik 20:30era.

GABONETAKO APAINKETA

Gaur piztuko dituzte
Gabonetako argiak

ENEIDA ITURBE

Pasa den astean hasi ziren Gabonetako argiak jartzen herrian. Gaur piztuko dituzte lehenengoz, eta hala egingo dute datozen eguenean, 2004ko urtarrilaren 6a arte. Aurretan, Udalaren helburua argiak herri osoan jartzea izan da, eta ez herrigunean bakarrik.

Egunez ere ikus daitezkeen izarrak ageri dira azken egun hauetan Antzuolan. Izan ere, herriko hogeita bi kale-argi izar itururako argiz apaindu dituzte.

Izarrak Kataluniako enpresa bati alokatu dizkio Udalak. Herriko bi sarreretan *Zorionak* dioten argiak jarri dituzte. Horiez gain, Beheko auzoan, Errekalden eta Ondarren ere argiak daude; eta elizan izar handi bat. Udaletxeko balkoian argi-jauzia deritzona egongo da.

Aurreko urteetan baino diru gehiago erabili du Udalak aurtengo Gabonetako apainketa egiteko. Argien alokairuan 4.000 euro gastatu ditu, eta muntaketa lanetan 2.000 euro.



Herriko kale-argietan izar itururako argiak jarri dituzte.

IKERKETA

Martxan da gazteen
inguruko ikerketa

E.I.

Nerea Altunaren aurpegia ezaguna egingo zaio zenbaiti; izan ere, Antzuolako gazteen aisialdia aztertzen dihardu. Hain zuzen ere, aurreko astean eman zion hasiera ikerketari Txatxilipurdiko kide den Nereak. 12-17 urte bitarteko gazteen iritzia jakiteko,

horiei inkestak banatzen aritu da egun hauetan. Datozen bi hilabeteetan gazteen iritziak eta herriko hainbat eragilerenak jasoko ditu.

Ikerketako emaitzekin txostena idatziko du, eta horren araberako gazteei herrian zer eskaini erabakiko da. Guztia egiten lau hilabete emango dituzte.



Nerea Altuna aretxabaletarra ari da Antzuolako gazteen ikerketa egiten.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Abenduak 6
12:00: Antzuola-Lazkao (Gazteak)
15:30: Antzuola-Eibartarrak B (2. erre.)

PILOTA

Abenduak 6 (Gipuzkoako txapelk.)
16:30: Olalde-Gazteleku (kadeteak)
Olalde-Eskoriatza (eskuz nagus.)
Olalde-Altzatarrak (paletaz na.)

EMAITZAK

FUTBOLA

Lagun Onak 5 Antzuola 4 (2. erreg.)
Lazkao 5 Antzuola 1 (Gazteak)
Antzuola 0 Bergara 5 (Kadeteak)

PILOTA

Gipuzkoako txapelketa
Eskoriatza-Olalde (eskuz infan.) 18-12
Bergara-Olalde (esk. kadeteak) 7-22
Olalde-Ilunpe (esk. nagusiak) 16-22
Oiangu2-Olalde (paletaz nagus.) 25-35

LABUR

Erretiratuen karta
txapelketa egongo
da abenduan

Erretiratuen batzordeak, urtero bezala, karta txapelketa antolatu du. Punttoan, bris kan, tutean eta musean arituko dira. Parte hartu nahi duenak abenduaren 14a baino lehen eman beharko du izena. Kanporaketak hilaren 15a eta 19a bitartean jokatuko dituzte.

AGAk txistorra
jana eskainiko du
domekan, hilak 7

Antzuolako Gazte Asanbladak txistorra jana egingo du datorren domekan, abenduak 7. Arratsaldeko 19:00etan izango da, Kalebarren kalean. Herritar guztiei zuzenduta egongo da txistorra jana eta borondatea eskatuko dute pintxo eta edarien truke.

Zenbait ekintza egiteko asmoa dauka AGAk datozen hilabeteetan. Duela bi aste, esate baterako, *gaztetxea* antolatu zuten udaletxe azpian; benetako gaztetxe baten falta salatzeke egin zuten hori.

Kongori buruzko erakusketa

Anelkarrek Kongori buruzko erakusketa jarri du Orlaranen. Aurreko asteburuan zabalik izan zen eta datorren honetan ere hala izango da. Zapatuan, abenduak 6, 18:30etik 20:00ak arte egongo da zabalik, eta domekan goiz eta arratsaldean, 12:00etatik 14:00ak arte eta 18:30etik 20:00ak arte.

Kongon bizi duten egoeraren eta Kansenia lurraldean egiten ari diren proiektuaren berri izan eta hango bideo bat eta zenbait artelan eta bitxikeria daude ikusgai.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA

Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioakKalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaza

Apainketarako eta
industriarako pinturak
•
Paper margotuak
•
Moketak eta tapizatuakKalegoi 21
Tf. eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR

taberna eta
gozotegiaBuztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

Tomas Gezalaza

Zoruen kutxilatua
eta
barnizaketaKalegoi 21
Tf. eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003ko abenduaren 5a / 165. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldeggi • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Maalako eta Salbador kaleko proiektuen gaineko proposamenak jasoko ditu Udalak

IRATI AGIRREAZALDEGI

Joan zen asteburuan ikusgai ipini zituzten, Maalan eta Salbador kalean egiteko asmoa duten proiektuen planoak. Orain, hilaren amaierara arteko epea izango dute elgetarrek proiektu hauen gaineko proposamenak udaletxera bidaltzeko.

Herrirako zenbait urbanizazio proiektu egin dituzte; Maalarako bat eta Salbador kalerako beste bat. Eta pasa den asteburuan, jendeak ikusteko, Ozkarbi elkartearen aldamenean ipini zituzten proiektu hauen planoak. Orain, elgetarrek hilaren 30era arteko epea izango dute proiektu hauen gainean dituzten proposamenak Udalari adierazteko. Horretarako hiru modu izango dira: e-posta bidez, elgeta@udal.gipuzkoa.net helbidean, udal bulegoetara bidalitako eskutitz bidez edo bertan inprimaki bat betez. Bestalde, Udaletik jakinarazi digutenez, joan den asteburuan aukerarik izan ez zutenendako, datorren abenduaren 20an eta 21ean berriz izango dira ikusgai proiektu horiek.



Salbador kalea oinezkoendako egokitzeta da proiektuetako baten asmo nagusia.

MAALA

Maala ingurua konpontzea da proiektu hauetako baten helburua. Horretarako, parke edo berdegune modura egokituko dute.

Bertan bankuak, zuhaitzak, ziburuak, iturria... izango dira. Gainera, plazatik Espaloia aretoa doan bidea ere egokitzeko asmoa dago, baita inguru horre-

tan paseoa egiteko ere, noizbait San Roke ostera luzatzeko asmoz. Bestalde, oraindik lekua zehaztu gabe dagoen arren, ermita bat ere ipiniko dute Maalan.

Proiektuak ikusi nahi dituenak udaletxeko idazkaritzara jo beharko du

SALBADOR

Orain dela urte asko San Roke kalean egin zuten bezala, Salbador kalean ere azpiegitura guztia (kableak, hodiak...) lur azpitik sartzeko asmoa dago, baita argiztapena berritzeko ere. Bestalde, espaloiak kendu eta bide guztia maila berean ipiniko dute proiektuaren arabera. Noizbait kalea oinezkoendako bakarrik izatea da Udalaren nahia, baina horretarako saihasbidea egin behar da.

Salbador kalearen hasieran dauden aparkalekuak kendu eta gune hori ume zein helduak lasai ibiltzeko lagako dute.

Salbador kaleko lanen kostua 378.613 eurokoa da eta Maalako parkearena, 289.996 eurokoa.

Proiektuak udaletxean ikusi eta proposamenak egiteko aukera dago hilaren amaierara arte.



Jaz Zubiaurre Toribio Echevarria Sarien irabazle

Eibarko Jaz Zubiaurre enpresa saritu dute Toribio Echevarria lehiaketan. Lantegia Eibarren badago ere, bertako gerentea, Eduardo Zubiaurre, ezaguna da Elgetan, hauteskundeetan EAJren zerrendan joan baitzen. Zubiaurrek (ezkerrean) jaso zuen saria eta lankideek berrikuntzaren alde egiten duten lana eskertu zuen. Jaz Zubiaurre alantrezko eskuiletan segurtasun sistema berriak ezartzeagatik saritu dute. /I.A.

LABUR

Lehenengo Errekako lanak hastear daude


Datorren astean hasiko dira Lehenengo Errekan urbanizazio lanetan. Construcciones Murias enpresa arduratuko da 81.770 m²-ko lursaila egokitzeaz. Gutxi gorabehera 10 lantegirendako tokia izango dela jakinarazi digute Udaletik eta 150 langilek jardungo dutela han. Hala ere, kontuan hartu behar da azalera horretatik erdia baino gutxiago izango dela tallerrendako. Lanak datorren urte amaierarako amaitzeaz izango dira.

ETXEBIZITZA

Aurki hasiko dira Torrealdean lehenengo etxebizitzak eraikitzen

Torrealdean etxeak eraikitzekeo aspaldikoa da. Astelehenean ziren hastekoak Elgetako etxebizitzakoak lurra egokitzekeo lanetan, baina eguraldiaren eraginez, asteazkenean, artean, oraindik ez zegoen makinarietara zuzentzen. Behin zimentatuta, plazatik gertuen zegoen alderdian 16 etxebizitzak eraikina egingo dutela jakinarazi digute.

Promozio librekoak izango dira lehenengo eraikiko dituzten etxebizitzak. Ondoren, ingurua urbanizatuko dute, baina horretarako lehiaketa publikoa egin behar da aurrez. Bestalde, eraikitzeke dago oraindik Torrealdean bertan eraikiko dituzten babes ofizialeko etxeak zeinek egingo dituen. Dena dela, laster hasiko da herriko Udala tramitazio lanetan.



Astelehenean ziren hastekoak Torrealdean lehenengo etxebizitza blokea eraikitzen.

BABES OFIZIALEKO ETXEAK
Torrealdean 76 etxebizitza eraikiko dituzte bost bloketan bitartean. Horietatik 20 izango dira babes ofizialekoak.

Zenbait lagunek eman dute izena babes ofizialeko etxebizitzetako bat eskuratzeko. Eurenkin eta interesa azaltzen dutene-

kin bilera egiteko asmoa dute Udalean. Oraindik eguna zehazteke badago ere, baliteke batzura abenduan egitea.

PILOLA

Pilota txapelketetako finalak Gabon zahar egunean jokoan

Herriko pilotariak txapelketetan murgilduta daude. Beteranoak finalerdietara bidean dira; eskola umeak, berriz, Gabonetan jokatu den txapelketaren atarian dira; eta Xabier Uberak, azkenik, agur eman zion pasa zen asteburuan DV torneoari.

Gabonetako oporrak aprobetxatuz, eskola umeendako esku-pilota txapelketa izango da abenduaren 29tik 31ra bitartean. Kanporaketak hilaren 29an eta 30ean

izango dira eta finalak Gabon zahar egunean. Txapelketan 6 eta 13 urte bitarteko neska-mutilek hartu ahal izango dute parte. Oraindik norbaitek izena eman nahi badu aukera duela jakinarazi dute antolatzaileek.

BETERANOAK
Bestalde, helduendako txapelketan joan zen asteburuan atzeratutako hiru partidua izan ziren jokoan eta jadanik erabakita geratu da zein lau bikote izango diren finalerdietan. Arantzetarrak, Koldo eta Txapel, Arantzabal eta Telleria eta Zenitagoia eta Mora-

les, hain zuzen ere. Finalerdiak abenduaren 19an jokatu dituzte eta finalak, abenduaren 31n.

UBERA, DV TORNEOTIK KANPO
Azkenik, joan zen barikuan jokatu zuen Xabier Ubera pilotari elgetarrak aurtengo DV torneoan estreinako partidua eta 22-14 galdu zuen. Argote zarautzitarra bikotekide zuela Mallabian jokatu zuen final-laurdena Irurita eta Errearen aurka. Hurrengo fase-ara pasatu nahiak presioa eragin zuen pilotariengan, eta gogor jokatu zuen arren, elgetarra ez zen finalerdietarako sailkatu.

LABUR

Txo HIESa taldeko bost kidek gaitzari buruz egin zuten berba gaztetxean


Abenduaren 1ean hiesaren aurkako nazioarteko eguna zela eta, asteburuan Bermeoko Txo HIESa taldeko hainbat kide izan ziren gaztetxean. Euretako bik euren esperientziak kontatu zituzten eta ondoren, bertaratutakoekin elkarrizketan jardun zuten. Bestalde, astean herriko zenbait tokitan lazo gorriak ipini dituzte.

Elgetako zenbait lan izango dira salgai Durangoko Liburu eta Disko Azokan

Durangoko Liburu eta Disko Azokak abenduaren 4an ireki zituen ateak. Astelehenera bitartean jende asko ibiliko da musika eta literaturako berrikuntzak ikusi eta eskuratu nahian. Liburuaren artean Elgetak ere izango du bere tartea. Besteak beste, hain izango dira Elgetako mapa toponimikoa, herriko toponomastikari buruzko liburua eta baita Alberto Telleriaren *Berbeta berua* ere.

Argentinari buruzko diapositiba emanaldia egingo du Xabier Bañuelosek egunean

Datorren egunean, abenduaren 11n, Xabier Bañuelos bidaiari eta argazkilarik bizkaitarrak diapositiba emanaldia egingo du liburutegian, arratsaldeko 20:00etan. *Argentina pobrea, Argentina aberatsa* izenburupean lurralde hartako bi errealitateak kontrastatuko ditu, iruditan islatuta. Batetik, nahasmen politikoan, ustelkerian eta gainbehera ekonomikoan murgildutako Argentina erakutsiko du. Bestetik, berriz, herri ikasia eta politikoki heldua den Argentina. Errealitatearen eta ametsaren artean dagoen lurralde baten berri emango du, Patagoniatik hasi eta Iguazu eta Humahuacarra arteko ibilbidea eginda. Kritikak irten ezin den arren, naturan aberastasun eta altxor ugari dituen herrialdearen berri, hain zuzen ere.



Inoiz finalean izan den arren, aurtien lehen partiduan kanporatu dute Ubera.

JAR EZAZU HEMEN ZURE PUBLIZITATEA

Goibekokale

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea •
- Reflexologia •
- Hidromasajea •
- Kirol masajea •
- Podologia •
- Solariuma •
- Drenaje linfatikoa •
- Algekin eginiko estalkia •
- Depilazioa laser bidez •

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko

Patxi Taberna

Bokata goxoak • Plater konbinatuak • Espezialitatea: Tripakiak

Salvador, 3 Tel.: 943 768 093 Elgeta

ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

Umore giroan Umore Ona elkartean

Orain dela 40 urte pasatxo ateratako argazkia duzue albokoa. Barrenkaleko Umore Ona elkartean San Martin eguna ospatzeko bazkaria egiten dute urtero hango bazkideek. Hain zuzen ere, 1960. urteko irailaren 16an ateratakoa ei da aste honetako erretratu zaharra.

Bertan agertzen direnak Umore Ona elkarteko lau bazkide dituzue. Bazkalostean, umore onean, txistua eta danbolina hartu, eta hauek dira txistulari talde berezi hura osatzen zutenak, ezkerretik eskumara: Juan Jose Hernando, Miguel Oianguren *Txantxote*, Jesus Sanchez eta Dionisio Olabarria.

Ez dakigu egun hartan zer-nolako emanaldia egin zuten Umore Ona elkarteko lagunak aurrean, baina estiloa, behintzat, antzematen zaio laukoteari, atrilean jarritako partitura zintzo-zintzo jarraitzen.

Argazkia: Martin Arana



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituz!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

BERGARA

Artzamendi kalea

Hamar urte baino gehiago igaro dira alboko bi argazkien artean.

Artzamendi kalean eraikitako 68 etxebizitza itunduak egin baino lehenagoko argazkia duzue ezkerrekoa. Etxebizitza horiek 1993ko otsailaren 25ean zozketatu zituzten.

Hain zuzen ere, etxebizitza kontzertatuen barruan, babes ofizialeko etxebizitzak eta etxebizitza sozialak deiturikoak zeuden.



≈ 1991 Artzamendi kalea orain dela 10 bat urteko argazkian. Jaurlaritzak eta Udalak bultzatutako 63 etxebizitza egin zituzten bertan.



2003 Artzamendi kalea gaur egun. Auzo nahiko berria dela esan daiteke, azken etxebizitzak egin ondoren dezente handitu dena.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia




Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12

GOIERRI
AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA



38. euskal liburu eta disko azoka
2003ko ABENDUAREN 4tik 8ra DURANGO

38. euskal liburu eta disko azoka DURANGO 2003 Abenduaren 4tik 8ra

Literaturaren alde gaude, musikaren alde.

Ezagutza bultzatzen dutenen alde gaude,

unibertsoak sortzen dituztenen alde,

hitza guztion gune bihurtzen dutenen alde.

*Kulturaz mintzo garenean,
guztion mintzaira baitarabilgu.*

 **Fundación
Grupo Eroski**

KONTSUMITZAILEARENTZAT

CDTI 3.0 Vectra Berria. Common Rail Diesel Turbo Inyección



Opel. Nuevas ideas. Mejores coches.

Diesel Teknologia potentziarik handiengan



16.760 €-tik Vectra bat duzu.*

CDTI 3.0 Vectra Berria 177 zaldi dituenak, Diesel Common Rail Turbo Inyección potentzia eskaintzen dizu. Mailarik altuena emateko pentsatutako kotxea, kontsumo minimoarekin. a Vectra bat teknologia diesel onenarekin

*Penintsula eta Balearretan Fabrikatzaileak gomendatutako prezioa, hilabetea bukatu arte, Vectra Essentia 1,8 5 balbuladun modeloan. BEZ, matrikulazio zerga, garraioa, inportazio gastuak, osagarrien kit-a, promozio deskontua eta Plan Prever berunik gabeko gasolina erabiltzen duten kotxeetan. Argazkiko modeloa ez da eskaintzan ematen den modeloa. Vectra gama: kontsumoa (l/100km) misota 5,6tik 10,4ra. CO2 (gr/km) igorpena 151tik 250ra.

Giauto Bergara

Kontzesionario ofiziala:

Olabarrena auzoa z/g. Tel. 943 76 33 44/45/46/47. **BERGARA**

www.giauto.es